

SARRERAKO JARDUERA: *Birraitonaren ganbaran*

Lehen aldiz CD-ROMa abiarazten dugunean, protagonistek (Maddalen –Orioko neskatila-, Fermin – Vianako mutila-, Urdintxo guakamaioa, Pox artzakurra) beren burua aurkezten dute.

Ostean, Antonio Sarasuak, Maddalenen birraitonak, unitateetan dauden jarduerak burutuz ikasturte amaieran lortu beharreko helburua argitzen du, hau da, museo bat eraikitzea eta hornitzea.

Ondorengo saioetan, aurrez aipatutako guztia ikusi eta entzun gabe pasa daiteke. Horretarako 1. pantailako behe aldean dagoen gezia sakatu behar da.

Jarraian, CD-ROMean lehen aldiz sartzen garenean, HASI sakatu eta izena idatzi behar da. Hurrengo saioetan JARRAITU sakatu eta agertzen den zerrendan izena hautatu behar da.

METODOLOGIA AHOLKUAK
<p>Taldekatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Talde osoa. <i>Taldekatzeko hau hobesten da</i> lehen aldiz CD-ROMean sartzen garenean.✓ Biko taldea.
<p>Noiz:</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Lehen aldiz sartzean, hau da, ikasturtearen hasieran, 2. unitatearekin hastean.✓ Irakasleari egoki iruditzen zaionean
<p>Espazioa:</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Gela barrua.✓ Infogela.
<p>Ikaslearen eginkizuna:</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Protagonisten aurkezpena eta helburuaren azalpena ikustea, entzutea eta ulertzea.✓ Elkarrizketan parte hartzea.✓ Bikotearen izena idaztea edo hautatzea.
<p>Irakaslearen eginkizuna:</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Talde handian, ikasleen txandak antolatzea.✓ Binakako lanari dagokionez, bikoteak izendatzea edo osatzen laguntzea. Bikotearen arteko kolaborazioa, txandak e.a. antolatzea eta funtzionatzeko era behatzea eta erregulatzea.✓ Ikasleek entzundako azalpenak ulertu dituztela ziurtatzea.✓ Elkarrizketa bultzatzea:<ul style="list-style-type: none">▪ Pertsonaien deskribapena▪ Ganbararen deskribapena▪ ...✓ Ikasleak parte hartzera bultzatzea.✓ Infogelan, ordenagailua eta programa abiarazten laguntzea.

Bigarren pantailan museo zaharkitu baten aurrean aurkitzen dira protagonistak -Maddalen eta Fermin- eta museoan sartzera gonbidatzen dituzte. Barruan, bi aukera daude:

1. Lortutako piezak ikusteko aukera. Horretarako ezkerrean dagoen armairua sakatu behar da. Baina, jakina, lehen aldiz sartzean, 1. garaiari dagozkion jarduerak burutu arte, erakusleihoa hutsik dago.
2. Denbora-makinaren aurrean sakatu eta barrura sartu.

METODOLOGIA AHOLKUAK
Taldekatzea: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde osoa. <i>Taldekatze hau hobesten da</i> lehen aldiz CD-ROMean sartzen garenean. ✓ Biko taldea.
Noiz: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lehen aldiz sartzean, hau da, ikasturte hasieran, 2. unitatearekin hastean. ✓ Irakasleari egoki iruditzen zaionean.
Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gela barrua. ✓ Infogela.
Ikaslearen eginkizuna: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakusleihoa ikustea edo makina barruan sartzea erabakitzea eta ekintza burutzea. ✓ Elkarrizketan parte hartzea.
Irakaslearen eginkizuna: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasleen txandak antolatzea, talde handian ari direnean. ✓ Elkarrizketa bultzatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsonaien deskribapena ▪ Museo sarreraren deskribapena ▪ ... ✓ Ikasleak parte hartzera bultzatzea. ✓ Infogelan, ordenagailua eta CD-ROMa abiarazten laguntzea.

Denbora-makinaren barruan, botoi urdina sakatu eta, makina martxan jartzen da; eskuinean dagoen palankari eraginez, nahi den aroa aukeratzen da, normalki ikasgelan lantzen ari den unitateari dagokiona. Palankaz garaietan aurrera eta atzera ibil gaitzke. Behin garaia hautatu eta gero, botoi gorria sakatu eta hautatutako garaira bidaiatzen da.

METODOLOGIA AHOLKUAK
Taldekatzea: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde osoa. <i>Taldekatze hori hobesten da</i> lehen aldiz CD-ROMean sartzean. ✓ Biko taldea.
Noiz: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lehen aldiz sartzean, hau da, ikasturte hasieran, 2. unitatearekin hastean. ✓ Irakasleari egoki iruditzen zaionean.
Espazioa: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gela barrua. ✓ Infogela.
Ikaslearen eginkizuna: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Elkarrizketan parte hartzea.

- ✓ Denbora-makina martxan jartzea.
- ✓ Garaia hautatzea eta bidaiari hasiera ematea.

Irakaslearen eginkizuna:

- ✓ Ikasleen txandak antolatzea talde handian ari direnean.
- ✓ Elkarrizketa bultzatzea:
 - Pertsonaien deskribapena
 - Makinaren deskribapena...
- ✓ Ikasleak parte hartzera bultzatzea.
- ✓ Infogelan ordenagailua eta CD-ROMa abiarazten laguntzea.
- ✓ Garaia zehaztea.
- ✓ Ikasleak esandako garaira bidaiatzen dutela ziurtatzea.